

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2017.04.25**

Tolosako Udaletxean, 2017ko apirilaren 25ean, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 25 de abril de 2017, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegui Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente  
Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Cristian Fernandez Susin

Ez bertaratutako zinegotzia:  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

Behin behineko Idazkaria:  
Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

### **Eguneko gaia zerrenda**

1. Ondorengo akta onartzea:  
2017ko martxoaren 28ko Ohizko Osoko bilkurakoa.
2. Alkatezako dekretu hauen berri ematea:

### **Orden del día**

1. Aprobación de la siguiente acta:  
Sesión ordinaria del 28 de marzo de 2017.
2. Dar cuenta de los siguientes decretos

|   |  |
|---|--|
| 2017ko martxoaren 2tik 31ra(2017/348-2017/574).   | emitidos por la alcaldía:<br>Del 2 al 31 de marzo de 2017 (2017/348-2017/574).   |
| 3. Diru-laguntzen ordenantza orokorraren hasierako onarpena.  | 3. Aprobación inicial de la Ordenanza General de Subvenciones.   |
| 4. Kirolerako diru-laguntzak erregulatzeko ordenantza bere eranskinekin: hasierako onarpena.                          | 4. Aprobación inicial de la ordenanza reguladora para la concesión de ayudas al deporte y sus anexos.                            |
| 5. Euskara zerbitzuko programen konturako diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onarpena.            | 5. Aprobación inicial de la ordenanza de subvenciones de los programas adscritos al Servicio de Euskara.                         |
| 6. Kultura arloko diru-laguntzen ordenantzaren hasierako onarpena.  | 6. Aprobación inicial de la ordenanza de subvenciones del Departamento de Cultura.   |
| 7. Gazteria arloko diru-laguntzen ordenantzaren hasierako onarpena.   | 7. Aprobación inicial de la ordenanza de subvenciones del Departamento de Juventud.  |
| 8. Berdintasun arloko diru-laguntzen ordenantzaren hasierako onarpena.  | 8. Aprobación inicial de la ordenanza de subvenciones del Departamento de Igualdad.  |
| 9. 2017/3 kreditu gehigarriaren hasierako onarpena.   | 9. Aprobación inicial de créditos adicionales 2017/3.  |
| 10. 2017ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena.  | 10. Propuesta de modificación del anexo de Subvenciones 2017.  |
| 11. 2017/2018 ikasturterako Ordenantza Fiskalen (musika eskola, kultur tallerrak eta euskaltegia) hasierako onarpena. | 11. Aprobación inicial de ordenanzas fiscales del curso escolar 2017/2018 (escuela de musica, talleres en cultura y euskaltegi). |
| 12. Leidor zinema aretoan zine-bonu zerbitzua ematearen prezio publikoen onarpena.                                    | 12. Aprobación de precios publicos del servicio de abonos de cine en el Cine Leidor.   |
| 13. Erromako Tratatuaren 60. urteurrenaren aurrean aurkeztutako mozioa.   | 13. Moción referente al 60 aniversario de la firma de los Tratados de Roma   |
| 14. Galderak eta eskaerak   | 14. Ruegos y preguntas.  |
| Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera   | A continuación, se da inicio a la sesión por la  |

eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1. Ondorengo akta onartzea:**  
**2017ko martxoaren 28ko Ohizko Osoko bilkurakoa.**

**1. Aprobación de la siguiente acta:**  
**Sesión ordinaria del 28 de marzo de 2017.**

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

**2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

**2017ko martxoaren 2tik 31ra(2017/348-2017/574).**

**2. Dar cuenta de los siguientes decretos emitidos por la alcaldía:**

**Del 2 al 31 de marzo de 2017 (2017/348-2017/574).**

Alkatetzak 2017ko martxoaren 2tik 31ra bitartean (2017/349-2017/574) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**3. Diru-laguntzen ordenantza orokorraren hasierako onarpena.**

**3. Aprobación inicial de la Ordenanza General de Subvenciones.**

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakaria: *“Orain dela gutxi dirulaguntzen 2017-2019 Plan Estrategikoa onartu genuen eta, oraingo honetan, Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru laguntzen ordenantza orokorra dakarkigu. Dirulaguntza publikoak emateko prozeduran eskatzen dena da, alde batetik, gardentasuna, aurrekontu egonkortasunari buruzko legean oinarrituta; baita ere eskatzen da eginkortasuna eta egingarritasuna diru laguntzen ondoriozko gastu publikoaren kudeaketan, eta hirugarrena, ordenantzak bete behar du gizon emakumeen berdintasunaren printzipioa. Premisa horietatik abiatuta erantzun egokia eman nahi izan zaio administrazio publikoak diruz gauzatutako jarduera, gaur egun eskatzen dituen betebeharrei, hain zuzen ere, gardentasuna, kontu finantzario eta zehazpen araubidearen alderdian. Azaldutako guztiagatik egokia iruditu zaigu egitea diru-laguntzen ordenantza orokor bat. Zeinuak aurreikusiko baititu gizarteko, kulturako, berdintasuneko, kiroletako eta hizkuntza politikako arloetako jarduerak eta, orohar, Euskadi Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legeak Udalei errekonozitzen dizkien eskumenei buruzkoak. Arlo horiek zerbitzu publikoen osagarriak dira eta horrela ordenantza orokor honek dirulaguntza deialdi ezberdinen zehaztapen orokorrak ezarri ditu. Aipatu behar da baita ere ogasun batzordean, apirilaren 18an egin genuena, EHBilduk aurkeztu zituen hainbat aldaketa, 8 aldaketa, onartu zirenak. Honekin batera aurkezten dugun kirol, euskera, kultura, gazteria eta berdintasun arloko dirulaguntza oinarri*

*espezifikoak arautzeko ordenantzak, plenoren onarpena behar dituenak.”*

- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Ezinbestekoa ikusten dugu legea betetzea, dirulaguntzen ordenantza orokorra onartzea. Azkenean dirulaguntza bat jasotzeko betebeharreko baldintzak, irizpide orokorrak, onartzen direlako bertan. Begoñak aipatu duen bezala EHBildutik zenbat ekarpen egin genituen zeinak onartu izan zirenak, baina bi nabarmendu nahiko genituzke. Alde batetik, gogorarazi genuen, eta etengabe ari ginen esaten batzordean, euskeraren irizpideei zegokionean. Aurreko legealdian, gure legealdian, gobernu batzordeak onartu zuen erabakia modu honetako dokumentuak onartzeko garaian bai berdintasun ataletik, zein euskera sailetik pasatzea dokumentu hauei zegozkion irizpideak barneratzeko eta nabarmena zen dokumentu hau berdintasunetik bai baina euskeratik ez dela pasa. Prozedura ez bada atzera botatzen, behintzat eskatuko genuke horrela egitea ez baita lehenengo aldia hizkuntza irizpideak falta direla horrelako dokumentuetan. Eta bestetik, arautzea beharrezkoa ikusten dugun bezala, proposatu genuen ezinbestekoa ikusten dugu dirulaguntzak hauek zurrizteko garaian herritarrei eta herri eragileei zurrizte hori erraztea. Azken finean, dirulaguntza jasotzen dituzte herrian ekimen ezberdinek antolatzen dituzten bai elkarte edo herritarrak eta ez genuke nahi sortzen den burokrazia guzti honengatik diru horiek ez jasotzea. Ondorioz, azken ekarpen bezala hori izan zen halako eredu bat helaraztea udalak herritarrak errazago izan zitzaten dirulaguntzen horien zurrizte.”*

-----

Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokor berri bat onartzea proposatzen da, Udalak 2010ean onartu zuena ordezkaturako duena.

Ordenantza aztertu eta Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18ko diktamena kontutan izanik, Udaltzarak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena:** Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru laguntzen ordenantza orokorrari hasierako onarpena ematea. Proiektua Web orrian publikaturako da.

**Bigarrena:** Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, interesatuek aurkeztu dezaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betikoz onartutzat joko da. Behin betikoa bihurtzen denean, testua argitaratzea Udaleko iragarki taulan eta Aldizkari Ofizialean. Baita web orrian ere.

**4. Kirolerako diru-laguntzak erregulatzeko ordenantza bere eranskinekin: hasierako onarpena.**

**4. Aprobación inicial de la ordenanza reguladora para la concesión de ayudas al deporte y sus anexos..**

Kirolerako diru-laguntzak erregulatzeko ordenantza (bere eranskinekin) onartzeko proposamena aurkeztu da.

Ordenantza aztertu eta Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18ko diktamena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

**ERABAKI DU**

**Lehena:** Kirolerako diru-laguntzak erregulatzeko ordenantzari bere eranskinekin hasierako onarpena ematea. Proiektua Web orrian publikatuko da.

**Bigarrena:** Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez interesatuek aurkeztu dezaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak. Epe horretan erreklamaziorik aurkeztuen ez bada behin betikoz onartutzat joko da. Behin betiko bihurtzen denean, testua argitaratzea Udaleko iragarki taulan eta Aldizkari Ofizialean. Baita web orrian ere.

**5. Euskara zerbitzuko programen konturako diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onarpena.**

**5. Aprobación inicial de la ordenanza de subvenciones de los programas adscritos al Servicio de Euskara.**

Euskara zerbitzuko programen konturako diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza proposamena aurkeztu da.

Ordenantza aztertu eta Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18ko diktamena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

**ERABAKI DU**

**Lehena:** Euskara zerbitzuko programen konturako diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzari hasierako onarpena ematea. Proiektua Web orrian publikatuko da.

**Bigarrena:** Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez interesatuek aurkeztu dezaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak. Epe horretan erreklamaziorik aurkeztuen ez bada behin betikoz onartutzat joko da. Behin betikoa bihurtzen denean, testua argitaratzea Udaleko iragarki taulan eta Aldizkari Ofizialean. Baita web orrian ere.

6. Kultura arloko diru-laguntzen ordenantzaren hasierako onarpena.

6. Aprobación inicial de la ordenanza de subvenciones del Departamento de Cultura.

Kultura arloko diru-laguntzen ordenantza proposamena aurkeztu da. Konkretuki ondorengoa: Tolosako Udalerrri irabazi-asmorik gabeko kultura elkarteek, pertsonak edo gizarte-elkarteei diru-laguntzak norgehiagoka-araubidez emateko.

Ordenantza aztertu eta Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18ko diktamena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

**ERABAKI DU**

**Lehena:** Kultura arloko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzari hasierako onarpena ematea. Proiektua Web orrian publikatuko da.

**Bigarrena:** Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez interesatuek aurkeztu dezaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak. Epe horretan erreklamaziorik aurkeztuen ez bada behin betikoz onartutzat joko da. Behin-betikoa bihurtzen denean, testua argitaratzea Udaleko iragarki taulan eta Aldizkari Ofizialean. Baita web orrian ere.

7. Gazteria arloko diru-laguntzen ordenantzaren hasierako onarpena.

7. Aprobación inicial de la ordenanza de subvenciones del Departamento de Juventud.

Gazteria arloko diru-laguntzen ordenantza proposamena aurkeztu da. Konkretuki ondorengoa: Tolosako udalerriko irabazi-asmorik gabeko gazte elkarte edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko diru-laguntza emateko oinarri bereziak.

Ordenantza aztertu eta Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18ko diktamena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena:** Gazteria arloko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzari hasierako onarpena ematea. Proiektua Web orrian publikatuko da.

**Bigarrena:** Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez interesatuek aurkeztu dezaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak. Epe horretan erreklamaziorik aurkeztuen ez bada behin betikoz onartutzat joko da. Behin betikoa bihurtzen denean, testua argitaratzea Udaleko iragarki taulan eta Aldizkari Ofizialean. Baita web orrian ere.

8. Berdintasun arloko diru-laguntzen ordenantzaren hasierako onarpena.

8. Aprobación inicial de la ordenanza de subvenciones del Departamento de Igualdad.

Berdintasun arloko diru-laguntzen ordenantza proposamena aurkeztu da.

Ordenantza aztertu eta Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18ko diktamena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena:** Berdintasun arloko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzari hasierako onarpena ematea. Proiektua Web orrian publikatuko da.

**Bigarrena:** Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez interesatuek aurkeztu dezaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak. Epe horretan erreklamaziorik aurkeztuen ez bada behin betikoz onartutzat joko da. Behin betikoa bihurtzen denean, testua argitaratzea Udaleko iragarki taulan eta Aldizkari Ofizialean. Baita web orrian ere.

9. 2017/3 kreditu gehigarriaren hasierako onarpena.

9. Aprobación inicial de créditos adicionales 2017/3.

Begoña Tolosa Mendia Ogasun batzordeko lehendakariak adierazi du kreditu aldaketaren proposamena 546.467,31eurokoa dela, bere finantzaketa osoa gerakinetatik izanik.

OHIZKO OSOKO BILKURA  
2017.04.25

Proposamena honakoa da:

| Gastuen partida              | Azalpena                                    | Kredituak  |            |                |
|------------------------------|---|------------|------------|----------------|
|                              |   | Egunoak    | Aldaketak  | Behin betikoak |
| 1 1100.227.07.431.00<br>2017 | ESTUDIOAK ETA LAN<br>TEKNIKOAK              | 0,00       | 16.000,00  | 16.000,00      |
| 1 1100.624.02.172.00<br>2017 | GARRAIO MATERIALA                           | 0,00       | 1.795,00   | 1.795,00       |
| 1 1000.481.01.341.00<br>2017 | IRABAZI ASMORIK GABEKO<br>ERAK.KIROLAREN SU | 204.600,00 | 8.000,00   | 212.600,00     |
| 1 0300.625.01.920.31<br>2017 | ORIABURU                                    | 0,00       | 11.025,00  | 11.025,00      |
| 1 0700.601.44.171.10<br>2017 | ELOSEGI PARKEA                              | 6.655,00   | 87.050,00  | 93.705,00      |
| 1 0400.624.01.130.00<br>2017 | UDALZAINGOA                                 | 0,00       | 25.000,00  | 25.000,00      |
| 1 0700.622.01.920.32<br>2017 | ZEZEN PLAZA                                 | 0,00       | 214.665,31 | 214.665,31     |
| 1 0700.623.05.165.00<br>2017 | MAKINERIA ETA<br>INSTALAZIOAK.ARGITERIA     | 20.000,00  | 47.432,00  | 67.432,00      |
| 1 0300.622.01.920.30<br>2017 | EDIFIZIOAK ETA BESTELAKO<br>ARAIKUNTZAK     | 0,00       | 11.500,00  | 11.500,00      |
| 1 0800.481.01.334.10<br>2017 | IRABAZI ASMORIK GABEKO<br>ELKARTEA. KULTURA | 137.000,00 | 14.000,00  | 151.000,00     |
| 1 0700.601.45.153.20<br>2017 | Paper Eskolako igoera                       | 0,00       | 110.000,00 | 110.000,00     |
|                              |   |            |            |                |
|                              | <b>GUZTIRA</b>                              | 368.255,00 | 546.467,31 | 914.722,31     |

*Proposamen zerrendatik aipamen hauek egin ditu:*

- *Tolosako ostalaritza eskaintzaren analisisa sektoaren jardueraren hobetzeko eskatu eta lan teknikoa egiteko.*
- *Oriaburu etxeko lehenengo plantan coworking-erako ekipamendua.*
- *Elosegi parkeko dorrearen konponketa.*
- *Udaltzaingorako ibilgailu hibidoaren erosketa bere osagaiekin, luminaria, e.a.*
- *Urtero egiten den herriko hainbat luminarien aldaketa.*
- *Zezen plazako obrako hurrengo fasea.*
- *Udaletxeko berogailuen sektoriala.*
- *CIT elkartearen 50 urteurrena dela eta ospakizun eta sari bereziaren antolaketarako.*
- *Paper eskolako igoerako 2. et 3. faseko obrak.”*



- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Nire diskurtsoa errepikakorra izan daiteke baina aurrekontuetan eta bestelako kreditu aldaketetan egin dugunarekin jarraituz,; badakigu EAJkoak gehiengoa duzuela eta ezertarako ez gaituzuela behar nahi ez baduzue behintzat. Aurreko eztabaida eman genuenean proposatu genuen beste lan egiteko modu batekin hasi gintezkeela. Lau urteetan Udalaren gidaritzapean egoteak hala perspektiba ematen du, halako ekarpen egin ditzazkegula uste dugu, ordezkatzan ditugun herritarrengatik ere, zer eskaini badaukagula uste dugu eta horregatik proposatu zitzaizuen behin likidazioa egin eta gero elkartzea nolabait 2017an zehar aurrera eramane genitzakeen proiektuak elkarrekin adosteko. Hala gelditu ginen baina ez dugu zuen berririk izan jada batzordean kreditu aldaketa aurkeztu duzuen arte. Likidazioa egin zen, datuak daukazue eta zuen kabuz osatu dituzue proiektu horiek. Kreditu aldaketan abstenitu egingo gara, azkenean ez daukagu ezer kreditu aldaketaren aurka baina iruditzen zaigu jarrera kontua dela- Beraz, ikusiko dugu hemendik aurrera bestelako aukerarik ba ote dagoen elkarrekin pausoak emateko.”*
- .. Alkateak. *“Uste dut daukagula, hitz egiten dugu elkarrekin baina badaukagu elkarrekin ulertzeko horrelako zailtasun bat. Gaizki ez banabil, Lore, aurreko osoko bilkuran izan zen zehazki baina proposatu izan zenutela horrelako lan taldea bat osatzea legealdiari begira gainera, estrategikoak izan daitezkeen herriarentzako eztabaidatzeko eta guk baiezkua eman genizuen eta egin genuen bilera bat,. Bilera horretan eskatu zenuten interesgarria zela edo derrigorrezkoa zela jakitea aurrekontuaren gerakinak zein zen proiektu horiek eztabaidatzeko edo mahai gaineratzeko. Hori kontuhartzaitzetan eskatu zen eta erantzuna izan zen likidazioa egiteko garaian izango zela momentua jakiteko zein zen egoera finaziero zehatza eta hortik aurrera plangintza egiteko. Orduan proposatu genizuen gerakina horren kopurua ematen ditugun haratako bazeudela hainbat gai, plan orokorra izan zitekeen bat, eseri eta hitz egin genezakeena eta erantzunik ez genuen jaso guk, Beraz, hor badago gaizki ulertu bat, ez dakit non galtzen garela, osoko bilkuran honetan borondatea azaltzen duzuela zuek eta azaltzen dugula guk baina egia da gero ez dela gauzatzen, ikasi beharko dugula bidea. Baina guk borondatea badaukagu benetan daukagula errespetua, ez alderdi edo besteak ordezkatzan duen herritarrei baizik eta Udalak ordezkatzan duen herriari.”*
- ... Ibai Iriarte San Vicente. *“Aurrekontuen plenoan ez nintzen egon juxtu aita izan nintzelako baina gogoratzen naiz bilera hori, hau da, aurrekontuen ondorioz eta aurreikusita jarrera horren aldaketa eta aurrekontu horien gure bozkaren ondorioz egin beharreko bilera gaizki ulerturen baten ondorioz, guk berriz ere eskatu behar izan genizuen, hala zuek onartu zenuten, baina guk, berriz ere, eskatu genuen biltzea. Izan ere, zuek ez zineten inongo momentuetan gerturatu. Eta plan orokorra aipatu duzunez, behin eta berriro galdetu diot Jokin-i baina gu gaude zain noiz jasoko duzuen oinarria. Orduan, agian gaizki ulertua izango da baina guk uste dugu dela kontutan ez hartzearen sentsazio sakona daukagu. Esan bezala aurrekontuen ondorioz guk bozka bat eman genuen uste genuelako legealdiko proiektu ezberdinak adosteko aukera izango zela, bilera egin genuen eta bilera horretan gelditu ginen datu batzuen zain, hemen daudenak, ordutik ez genuen zuen berririk izan, datuak mahai gainean daude eta kreditu aldaketa hau proposatzen duzue. Plan orokorraren inguruan behin eta berriz galdetu dut dokumentua nola dagoen, hola dagoen gaia eta denbora eskatu didate. Agian jarrerak izango dira, hizkuntza ezberdinetan ari garen nahi eta hizkuntza berdina izan, ez ez zait iruditzen forma egokiak direnik. Beste eratako hartu emanak izango beharko ditugu, guk erabat ninguneatuta sentitzen gara. Jakin badakigu zuek PNV eta PSEk gehiengoa duzuela, PP balego gehiengoa zabalduko zenukete, baina guri ere 3600 pertsonak gora bozkatu digute eta iruditzen zaigu zuek Udal honetako ordezkari izan eta Tolosa guztien ordezkapena izanik haiek ere gure eskutikan entzuteko bideak ireki beharko zenituzkeela.”*
- ... Alkatea: *“Ez gara eztabaida itsu baten sartuko baina nik bai berrezten dut herritarreko*

*errespetu osoa daukagula eta horregatik saiatuko gara berriz ere elkartzen eta berriz ere kontu horiek mahai gaineratzen. “*

Jarraian, Udalbatzak, EAJ-PNV(9) eta PSE-EE(1) zinegotzien aldeko botoekin eta EHBildu(6) abstentzio botoarekin, gehiengoz, bere egin du Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18an jaulkitako diktamena, akordio bihurtuz:

**“2017/3 kreditu gehigarrien espedientea. Haserako onarpena.**

*Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu da.*

*Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.*

*Halaber, kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu da.*

*Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, batzorde honek EAJ-ko eta PSE-ko ordezkarien 2 botoekin aipatutako espedientea ontzat ematea diktaminatu du eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 546.467,31 eurokoak, behin behineko onar ditzala. EH Bildu-ko bi ordezkariak abstenitu egin dira.*

*Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkotzat jotzen duena ebatziko du.”*

**10. 2017ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena.**

**10. Propuesta de modificación del anexo de Subvenciones 2017.**

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, bere egin du du Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18an jaulkitako diktamena, akordio bihurtuz:

**“1.-Tolosako Bizikidetza Foroa**

*Tolosako Bizikidetza Foroak, 2017.urterako, 3.569,50 euroko diru-laguntza eskaera luzatu dio Udalari, aurtengo martxoaren 16an. Eskaeran bertan, aurkeztutako ekitaldi eta ekimeneko aurrekontuan oinarrituta, %70eko aurrerapen bat eskatzen dute, urtean zehar sortuko diren gastuei aurre egin ahal izateko.*

*Eskaera aztertu eta gero, kontuan izanik Bizikidetza Foroak Tolosan egiten ari den lana bizikidetza alorrean, Alkatetza honek onuragarritzat jotzen ditu taldearen jarduerak eta ondorengoa diktaminatu da:*

- Eskatutako diru-laguntza onartzea
- Jarduera martxan jartzeko sortuko zaizkien gastuei aurre egin ahal izateko, 2.498,30 euroko diru-laguntza aurreratzea (aurreikusitakoaren %70a). Horretarako zergak eta

Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

- Bigarren zatia jasotzeko bizikidetza Foroak hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko ditu: Tolosako udalak diruz lagundutako jardueren memoria, diru-kontuen balantzea, zergak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, eta diru-laguntza osoa zurrizko adinako fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak.

Behin jasotako proposamena aztertu ondoren, batzordeak aho batez diktaminatu du kontzeptu honetarako ezarritako kopurutik ateratzea eta nominatibo bezala izendatzea Tolosako Bizikidetza Foroari dagokion diru-laguntza. Beraz, 2017ko diru-laguntzen eranskineko 0100.481.01.912.00 partida honela geratzen da:

| <b><u>PARTIDA</u></b> | <b><u>ONURADUNA</u></b> | <b><u>TIPOA</u></b> | <b><u>HELBURUA</u></b> | <b><u>AURREKONTUA</u></b> |
|-----------------------|-------------------------|---------------------|------------------------|---------------------------|
| 0100.481.01.912.00    | Talde politikoak        | Legea/akordioa      | Alderdi politik.dietak | 50.430,50                 |
| 0100.481.01.912.00    | Bizikidetza<br>Foroa    | Nominatiboa         | Bizikidetza lantzea    | 3.569,50                  |
| <b>GUZTIRA</b>        |                         |                     |                        | 54.000                    |

## 2.-Bernat Etxepare Lizeoa

Tolosako Udalak Baionako Bernat Etxepare Lizeoaren eskaera jaso zuen 2016ko abenduaren 14ko datarekin (Udal Sarrera Erregistroko 10146 zk.).

Bernat Etxepare Lizeoa Ipar Euskal Herrian 15-18 urte arteko formakuntza (DBH4, BB1 eta BB2) osoki euskaraz ematen duen lizeo bakarra da, eta datorren ikasturteetik aurrera adar profesionala eskaintzeko asmoa du Iparraldeko haur eta gazteentzat ikasketak euskaraz egiteko eskaintza zabaltzeko helburuarekin.

Proiektua berealdikoa da eta, era berean, oso kostu handikoa. Kontuan izan behar da, gainera, iparraldeko euskal lizeo bakarra denez, Ipar Euskal Herriko bazter guztietako ikasleak hartzen dituela eta gurasoen gastuak areagotu egiten direla, bidaiengatik eta barnetegiaren beharra ere dutelako.

Lizeoaren eskaintza berriaren ondorioz eta geroz eta ikasle gehiago dituztenez, eraikin berria egitea besterik ez zaie geratu. Eskaeran diotenez, horren kostua 300.000 eurora iritsiko da.

Finantzaketa bila, lizeoko gurasoen nahitaezko ekarpen ekonomikoez gain, "Euskararen sagartzea" izenarekin kanpaina bat zabaldu dute Euskal Herri osoan dirua lortzeko.

Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak, 2017ko urtarrilaren 26an egindako bileran, eskaera aztertu eta gero, proposatu zuen 1.700 euroko diru laguntza ematea, kontuan izanik bereziki euskararen etorkizunerako ezinbestekoak direla horrelako hezkuntza eta prestakuntza proiektuak aurrera eramatea Euskal Herri osoan, eta are gehiago horrelako eskaintza bakarra denean zonalde handi batean.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordearen onespenerarekin, batzordeak aho batez diktaminatu du Bernat Etxepare Lizeoari aipatutako diru kopurua -1.700 euro- 2017ko udal aurrekontuetako Euskara Zerbitzuko diru laguntzen 0900 481.01.335.10 partidan nominatiboa izendatzea, bidezko murrizketa eginez partida horretako "Erabilera lan

munduan" atalean. Beraz, 2017ko diru-laguntzen eranskineko 0900 481.01.335.10 partidan honela geratzen da:

| <b>PARTIDA</b>        | <b>ONURADUNA</b>       | <b>TIPOA</b> | <b>HELBURUA</b>       | <b>AURREKONTUA</b> |
|-----------------------|------------------------|--------------|-----------------------|--------------------|
| 0900<br>481.01.335.10 | Enpresak               | Norgehiagoka | Erabilera lan munduan | 14.300             |
| 0900<br>481.01.335.10 | Bernat Etxepare Lizeoa | Nominatiboa  | Euskara sustatzeko    | 1.700              |
| <b>GUZTIRA</b>        |                        |              |                       | 16.000             |

### 3.-CIT

Tolosako Udaleko CITek (Centro de Iniciativa de Tolosa) urtemuga ospatuko duela eta batzordeak aho batez diktaminatu du diru-laguntzen eranskineko 0800.481.01.334.10 partidan 14.000 euro era nominatiboan gehitzea, jarraian zehazten diren ekintzei aurre egiteko:

- Eventos 50 aniversario CIT( Muerte del Minotauro/Video mapping): 20.000 euro
- Gran premio Europeo de Canto de Coral: 6.000 euro

Diru-laguntza hau aurrera eraman ahal izango da 2017/3 kreditu gehigarria egin ondoren. Beraz, 2017ko diru-laguntzen eranskineko 0800.481.01.334.10 partidan honela geratuko da:

| <b>PARTIDA</b>     | <b>ONURADUN.</b> | <b>TIPOA</b> | <b>HELBURUA</b>                          | <b>AURREKONTUA</b> |
|--------------------|------------------|--------------|--|--------------------|
| 0800.481.01.334.10 | CIT              | Nominatiboa  | CIT apartekoa (urteurrena, sari berezia) | 26.000             |
| <b>GUZTIRA</b>     |                  |              |  | 26.000             |

### 4.-Tolosa CF eta Tolosaldeko Arraun Kluba

Tolosa CF-eko eskubaloia sekzioari 5.000 euro eta Tolosaldeko Arraun Klubari 3.000 euro emateko kreditu gehikuntza bat proposatu da 2017/3 kreditu gehigarrien modalitatean tramitatzeko ari den espedientean.

Hau dela eta, diru-laguntzen eranskineko 1000.481.01.341.00 partidan zenbateko hori era nominatiboan gehitzea diktaminatu du batzordeak aho batez.

Beraz, 2017ko diru-laguntzen eranskineko 1000.481.01.341.00 partidan honela geratuko da:

| <b>PARTIDA</b>     | <b>ONURADUN.</b> | <b>TIPOA</b> | <b>HELBURUA</b>       | <b>AURREKONTUA</b> |
|--------------------|------------------|--------------|-----------------------|--------------------|
| 1000.481.01.341.00 | Tolosa CF        | Nominatiboa  | Eskubaloia sustatzeko | 5.000              |
| 1000.481.01.341.00 | TAK              | Nominatiboa  | Arrauna sustatzeko    | 3.000              |
| <b>GUZTIRA</b>     |                  |              |                       | 8.000              |

“

**11.2017/2018 ikasturterako Ordenantza Fiskalen (musika eskola, kultur tallerrak eta euskaltegia) hasierako onarpena.**

**11.Aprobación inicial de ordenanzas fiscales del curso escolar 2017/2018 (escuela de musica, talleres en Cultura y Euskaltegi).**

Jarraian,Udalbatzak, aho batez, bere egin du, Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18an jaulkitako diktamena, akordio bihurtuz:

**“2.1.17 Musika eskola**

Tarifa guztiei martxoako urtearteko KPIa aplikatzea diktaminatu du batzordeak, aho batez. KPIa %2,25ekoa izan da.

Ondorioz, honela geratu tarifak 2017/2018 ikasturterako:

| MUSIKA ESKOLA ZERBITZUA         | SERVICIO ACADEMIA DE MUSICA       | TARIFA OROKORRA (General) 2016-2017 | TARIFA TOLOSA 2016/2017 | TARIFA OROKORRA (General) 2017-2018 | TARIFA TOLOSA 2017/2018 |
|---------------------------------|-----------------------------------|-------------------------------------|-------------------------|-------------------------------------|-------------------------|
| A) Musika eskola                | Escuela de Música:                |                                     |                         |                                     |                         |
| 1.maila                         | 1º nivel                          | 272,00                              | 182,00                  | 278,00                              | 186,00                  |
| 2.maila                         | 2º nivel                          | 813,00                              | 540,00                  | 831,00                              | 552,00                  |
| 2.maila solfeorik gabe          | 2º nivel sin solfeo               | 539,00                              | 360,00                  | 551,00                              | 368,00                  |
| 3.maila                         | 3º nivel                          | 975,00                              | 651,00                  | 997,00                              | 666,00                  |
| 3.maila, osagarririk gabe       | 3º nivel, sin complementaria      | 678,00                              | 452,00                  | 693,00                              | 462,00                  |
| 4.maila                         | 4º nivel:                         |                                     |                         |                                     |                         |
| a) Musika taldea                | a) Conjunto musical               | 135,00                              | 91,00                   | 138,00                              | 93,00                   |
| b) instrumentua + musika taldea | b) instrumento + conjunto musical | 678,00                              | 452,00                  | 693,00                              | 462,00                  |
| Ikasle errefortzatuak           | Alumnos reforzados                | 1.246,00                            | 832,00                  | 1.274,00                            | 851,00                  |
| Informatika musikala            | Informática musical               | 272,00                              | 182,00                  | 278,00                              | 186,00                  |
| Bigarren instrumentua           | Segundo instrumento               | 272,00                              | 182,0                   | 278,00                              | 186,00                  |

### **2.1.18 Kultur tailerrak**

Tarifa guztiei martxoako urtearteko KPIa aplikatzea diktaminatu du batzordeak, aho batez. KPIa %2,25ekoa izan da.

Ondorioz, honela geratu tarifak 2017/2018 ikasturterako:

| <b>KULTUR LANTEGIAK<br/>IKASTAROA</b>  | <b>TALLERES CULTURALES<br/>CURSO</b> | <b>TARIFA<br/>OROKORRA<br/>(General)<br/>2016-2017</b> | <b>TARIFA<br/>TOLOSA<br/>2016/2017</b> | <b>TARIFA<br/>OROKORRA<br/>(General)<br/>2017-2018</b> | <b>TARIFA<br/>TOLOSA<br/>2017/2018</b> |
|--|--------------------------------------|--|--|--|--|
| 1. Pintura ikastaroa.14 urtez gorakoak | Curso de pintura. Mayores de 14 años | 281,00   | 187,00                                 | 287,00   | 191,00                                 |
| 2. Eskulanak.6-14 urte bitartekoak     | Manualidades. De 6 a 14 años.        | 206,00   | 137,00                                 | 211,00   | 140,00                                 |
| 3. Zeramika ikastaroa, urteko          | Curso de cerámica, anual             | 281,00   | 187,00                                 | 287,00   | 191,00                                 |
| 4. Antzerki ikasturtea                 | Curso de teatro, anual               | 251,00   | 166,00                                 | 257,00   | 170,00                                 |
| 5. Argazkigintza (100 ordu)            | Fotografía (100 horas)               | 337,00   | 224,00                                 | 345,00   | 229,00                                 |
| 6. Balleta                             | Ballet                               | 214,00   | 142,00                                 | 219,00   | 145,00                                 |
| 7. Balleta aurreratua                  | Ballet avanzado                      | 282,00   | 195,00                                 | 288,00   | 199,00                                 |
| 8. Balleta (puntas)                    | Ballet (puntas)                      | 81,00  | 53,00                                  | 83,00  | 54,00                                  |
| 9. Dantza garaikidea                   | Baile contemporaneo                  | 282,00   | 195,00                                 | 288,00   | 199,00                                 |
| 10. Egur taila                         | Talla de madera                      | 281,00   | 187,00                                 | 287,00   | 191,00                                 |
| 11. Ehoziariak eta bainika             | Encaje de bolillos y vainica         | 281,00   | 187,00                                 | 287,00   | 191,00                                 |

### **2.1.19. Udal Euskaltegia**

Tolosako Udal Euskaltegiko tasak eta hobariak erregulatzeko dituen udal ordenantza aztertu zuen Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak 2017ko apirilaren 6an.

Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendariak egindako proposamenaren arabera, 2017-2018 ikasturterako honako aldaketa hau egitea onartu zuen Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak:

A1, A2 eta B1 mailetakoko materialaren tasa 18 eurotik 35era igotzea.

Horren arrazoi nagusia da lehen fotokopia bidez banatzen zela materiala eta, orain, egokiago jo dela jartzea ikasleen eskuetan liburua edo material original bera.

Batzorde honek, aho batez hau diktaminatu du:

- A1, A2 eta B1 mailetakoko materialaren tasa 18 eurotik 35 eurotara igotzeko egindako proposamena onartzea
- gainontzeko tarifa guztiei martxoako urtearteko KPIa aplikatzea. KPIa %2,25ekoa izan da.

Ondorioz, honela geratu tarifak 2017/2018 ikasturterako:

OHIZKO OSOKO BILKURA  
2017.04.25

| EUSKALTEGIA  | EUSKALTEGIA   | 2016-2017 | 2017-2018 |
|--|---|-----------|-----------|
| 1.- Egunean 2,5 ordu, astean 10, 9 hilabete.   | 1.- 2,5 horas diarias, 10 semanales, 9 meses.   |           |           |
| Matrikula  | Matrícula   | 400,00    | 409,00    |
| Materiala  | Material  |           |           |
| A1- A2 - B1mailak  | Niveles A1 - A2 y B1  | 18,00     | 35,00     |
| B2 maila   | Nivel B2  | 32,00     | 33,00     |
| C1 maila   | Nivel C1  | 44,00     | 45,00     |
| 2.- Egunean 2 ordu, astean 8, 9 hilabete.  | 2.- 2 horas diarias, 8 semanales, 9 meses.  |           |           |
| Matrikula  | Matrícula   | 322,00    | 329,00    |
| Materiala  | Material  |           |           |
| A1- A2 - B1mailak  | Niveles A1 - A2 y B1  | 15,00     | 15,00     |
| B2 maila   | Nivel B2  | 26,00     | 27,00     |
| C1 maila   | Nivel C1  | 43,00     | 44,00     |
| 3.- Modulu konbinatuak. Astean 8 ordu, 9 hilabete: 5 ordu aurrez-aurrez eta 3 ordu autoikaskuntza, tutorizarik gabe. | 3.- Módulos combinados. 8 horas semanales, 9 meses: 5 horas presenciales y 3 horas autoaprendizaje sin tutoría. |           |           |
| Matrikula  | Matrícula   | 223,00    | 228,00    |
| Materiala  | Material  |           |           |
| A1- A2 - B1mailak  | Niveles A1 -A2 y B1   | 15,00     | 15,00     |
| B2 maila   | Nivel B2  | 26,00     | 27,00     |
| C1 maila   | Nivel C1  | 43,00     | 44,00     |
| 4.- Egunean 2 ordu, astean 6, 9 hilabete.  | 4.- 2 horas diarias, 6 semanales, 9 meses.  |           |           |
| Matrikula  | Matrícula   | 249,00    | 255,00    |
| Materiala  | Material  |           |           |
| A1- A2 - B1mailak  | Niveles A1 -A2 y B1   | 14,00     | 14,00     |
| B2 - alfabetatzen  | Nivel B2 -alfabetización  | 19,00     | 19,00     |
| C1 maila   | Nivel C1  | 31,00     | 32,00     |
| 5.- Egunean 2,5 ordu, astean 5 ordu, 9 hilabete.   | 5.- 2,5 horas diarias, 5 semanales, 9 meses.  |           |           |
| Matrikula  | Matrícula   | 200,00    | 205,00    |
| Materiala, HABEren azterketak prestatzeko taldeak.   | Material, grupos preparación exámenes de HABE.  |           |           |
| B1 maila   | Nivel B1  | 11,00     | 11,00     |
| B2 - alfabetatzen  | Nivel B2 - alfabetización   | 16,00     | 16,00     |
| C1 maila   | Nivel C1  | 26,00     | 27,00     |
| C2 maila   | C2 maila  | 139,00    | 142,00    |
| 6.- Egunean 2 ordu, astean 4, 9 hilabete.  | 6.- 2 horas diarias, 4 semanales, 9 meses.  |           |           |
| Matrikula  | Matrícula   | 163,00    | 167,00    |
| Materiala  | Material  |           |           |
| A1- A2 - B1mailak  | Niveles A1 -A2 y B1   | 9,00      | 9,00      |
| B2 maila   | Nivel B2  | 16,00     | 16,00     |
| C1 maila   | Nivel C1  | 22,00     | 22,00     |
| 7.- Autoikaskuntza   | 7.- Autoaprendizaje   |           |           |
| Ikasturte osoa, matrikula eta materiala barne.   | Curso completo, matrícula y material.   | 626,00    | 640,00    |
| Ikasturtearen zatia, tutoretzako, matrikula eta materiala barne.   | Curso no completo, por tutoría, matrícula y material incluidos.   | 39,00     | 40,00     |
| 8.- Bestelako moduluak, orduko.  | 8.- Otros módulos, por hora.  |           |           |
| Matrikula  | Matrícula   | 1,20      | 1,20      |
| Materiala  | Material  | 0,09      | 0,09      |

**12. Leidor zinema aretoan zine-bonu zerbitzua ematearen prezio publikoen onarpena.**

**12. Aprobación de precios públicos del servicio de abonos de cine en el Cine Leidor.**

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, bere egin du Ogasun Batzordeak 2017ko apirilaren 18an jaulkitako diktamena, akordio bihurtuz:

*“Leidor aretoan zinea sustatzeko eskaintzen diren bonuen prezioak arautzeko Kultur sailak proposatu du prezio publikoen ordenantza fiskaleko Leidor aretoaren zerbitzuari dagokion 3.1.3 eranskina aldatzea, hain zuzen ere, bi puntu berriak sartuz aplikazio arauetan.*

*Batzordeak, aho batez, aurkeztutako proposamenaren alde diktaminatu du eta Osoko Bilkurak onar dezan proposatu du.*

*Hauek da proposatzen den aldaketa:*

**Zine bonuak.**

*Udalak zine zikloak antolatzen dituenean, zinea sustatzeko bonuak eskaini ahal izango ditu ondorengo helburuekin:*

- *Zine europearra, eta estatubatuarra ez dena, sustatzea*
- *Jatorrizko bertsioak sustatzea*
- *Zine programazioaren jasangarritasun ekonomikoa bermatzea.*

*Zine zikloek ondorengo gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte bonuak eskaini ahal izateko:*

- *Gutxieneko zine europearra, eta estatubatuarra ez dena: filmen % 55.*
- *Gutxieneko zine forum filmak: kopuru osoaren %40.*
- *Gutxieneko jatorrizko bertsioen saioak: saioen % 55.*

**6.1. Bonuaren funtzionamendua:**

- *Zikloaren arabera, bonuak 10 eta 15 film bitarte bilduko ditu, 4 eta 6 aste inguruko tartean, eta film bakoitzaren saio batera joateko aukera emango du.*
- *Bonua leihatilan aurkeztu eta bonudunen gonbidapena erretiratu beharko da aretora sartzeko, eta bonuari, dagokion filmaren irudiaren gainean marka egingo diote.*
- *Bonua izenik gabea izango da.*

**6.2. Bonuen prezioak:**

| <i>Film bakoitzaren edozein saiotarako</i> | <i>Film bakoitzaren edozein saio igande arratsaldekoa izan ezik</i> |
|--|---|
| <i>10 film – 12,00 €</i>                   | <i>10 film – 11,00 €</i>  |
| <i>11 film – 13,00 €</i>                   | <i>11 film – 12,00 €</i>  |
| <i>12 film – 14,00 €</i>                   | <i>12 film – 13,00 €</i>  |
| <i>13 film – 15,00 €</i>                   | <i>13 film – 14,00 €</i>  |
| <i>14 film – 16,00 €</i>                   | <i>14 film – 15,00 €</i>  |



### 6.3. Bonuz kanpoko filmak:

Filma programatzerakoan, banatzaileak jarritako baldintzengatik, filma bonuaren barruan eskaintzea ezinezkoa bada, bonudunentzat ikuslearen eguneko prezioan eskaini ahal izango da.

Zine zikloen bereizgarritasunaren arabera, udalak beste prezio batzuk erabaki ahalko ditu, puntualki.

### 7. **Haur zine-bonuak:**

Udalak haur-zine zikloak antolatzen dituenean, haurren artean zinea sustatzeko bonuak eskaini ahal izango ditu ondorengo helburuekin:

- Zine europarra sustatzea
- Zinea euskaraz sustatzea

Zine zikloek ondorengo gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte bonuak eskaini ahal izateko:

- Gutxieneko zine europarra: zikloko filmen % 50
- Gutxieneko euskarazko film kopurua: zikloko filmen % 55

#### 7.1. Bonuaren funtzionamendua:

- Zikloaren arabera, bonuak 5 eta 10 film bitarte bilduko ditu eta film bakoitzaren saio batera joateko aukera emango du.
- Bonua leihatilan aurkeztu eta bonudunen gonbidapena erretiratu beharko da aretora sartzeko, eta bonuari, dagokion filmaren irudiaren gainean marka egingo diote.
- Bonua izenik gabea izango da.

#### 7.2. Bonuen prezioak:

Film bakoitzaren edozein saiotarako

5 film – 8,00 €  
6 film – 9,00 €  
7 film – 10,00 €  
8 film – 11,00 €  
9 film – 13,00 €  
10 film – 14,00 €

### 7.3. Bonuz kanpoko filmak:

Filma programatzerakoan, banatzaileak jarritako baldintzengatik, filma bonuaren barruan eskaintzea ezinezkoa bada, bonudunentzat 3,5 €-ko prezioan eskaini ahal izango da.

Zine zikloen bereizgarritasunaren arabera, udalak beste prezio batzuk erabaki ahalko ditu,

puntualki.

Zine-bonu zerbitzuen BEZari dagokionez salbuetsita daude, Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenaren 20. artikuluko Bat 14 c) atalaren arabera.

Prezio publikoen ordenantzaren aldaketa hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita jarriko da indarrean.”

**13. Erromako Tratatuaren 60. urteurrenaren aurrean aurkeztutako mozioa.**

**13. Moción referente al 60 aniversario de la firma de los Tratados de Roma**

Partehartzeak:

... bai Iriarte San Vicente (EHBildu): “Hitz asko, hitz handiak eta Europaren ametsaren ingurukoak denak. Idatziak harritu egin nau, lehenago Olatzi ere esan diot, eta guk EHBildutik ere betidanik esan izan dugu: guk Europari bai, baina herriak eta pertsonak oinarri izango lituzkeen Europa batean sinesten dugu.

Eta hemen, idatzi honek, behin eta berriz esaten du, Europar Batasun Federala defendatzen duela, zailtasunak dituzten herrialdeen alde egingo duena eta azkeneko funtsa, Estatuak baino Europako hiritarrak dituena. Hori jartzen du azkeneko esaldian. Noski, guk ere halako zerbait nahi genuke, baina, kontua da, gaur egun, Europar Batasuna ez dela hori. Egun, Europar Batasuna justu kontrakoa da: Europar Batasuna Troikaren Batasuna da; pertsonak eta giza eskubideak oinarri izan beharko lituzkeen Batasun bat baino, finantza-kapitala oinarri eta beronen menpe dagoen esparru geografiko eta batasun ekonomiko bat da; murrizketen Europa da; inhumanitatearen Europa da, Mediterraneo Itsasoa hilerri izugarri bat eta injustizia ugariz betetako itsaso bilakatu da, non mare nostrum bat baino, mare mortum bat bilakatu dugun, gure politikak, gure Estatuak, Estatu frantsesak zein espainiarrak, hau da, euskaldunak zapaltzen gaituzten Estatuak, agintzen duten European, horiek hartzen dituzten erabakiak tarteko: mugak ixtearen erabakiak eta mugak ixtearen erabakiek dakartzatelako hildakoak.

Mugak ixten dituzte eta murrizketak egiten dituzte, murrizketek pobrezia dakarte, eta pobrezia desberdintasun ekonomikoa eta batzuentzat pobrezia dena, gutxi batzuentzat aberastasuna da. Hori guztia da gaur egun Europa eta Europar Batasuna eta guk horretan ez dugu sinesten: finantza-erakundeak oinarri dituzten eta murrizketak ardatz dituzten European ez dugu sinesten.

Gaur dira 43 urte Portugalen Krabelinen Iraultza eman zenetik, hau da, Salazarren Diktadura bertan behera gelditu zela, herriak sistema demokratiko bat jarri nahi zuelako martxan, eta gaur da eguna, Portugal interbenituta dagoela eta Troika edo dirua oinarri duten gizonezko trajedun batzuek agintzen dutela. Gaur egungo Europa inoiz baino demokrazia gutxiago daukan Europa da eta ondorioz, kapitalaren Europa horren ondorioz, desberdintasunen Europa sortu da eta horren erantzun gisa, eskuina eta eskuin muturra indartzen ari dira.

*Batzuek eskuak burura eramaten dituzte Frantzian Le Pain bigarren bueltara iritsi delako, baina Europako Estatuak Europan hartzen dituzten erabakien ondorio dira. Espainian hori ez da gertatzen PPK eskuina eta ultra eskuina ere bere barruan dituelako, baina ez dago urrutira joan beharrik, agintean dauden askok diktadorearen abestiak abestu dituztelako duela gutxi hilerrietan. Ondorioz, guk ez dugu sinesten Europa honetan. Idatzian datorren Europa horretan bai, eta horregatik alde bozkatuko dugu. Baina iruditzen zaigu erantzukizun handia daukagula Europa den hau errotik aldatzeko, bestela Europak berea egin duelako eta bigarren faxismoaren garaia elikatzen ari garelako. Hau da, ultra-eskuina, arrazismoa, desberdintasunetan oinarrituta dagoen Europa eta guk horretan ez dugu sinesten. Beraz, mozioaren alde egingo dugu, ulertzen dugulako Europa federal baten alde egin nahi dugula, herrien eta pertsonen Europa baten alde egin nahi dugula. Ongizate Estatuaren aldeko Europa bat eskatzen du idatzi honek, baina esaten dugu, gaur egungo ereduarekin benetako talka egingo lukeen Europa batetaz hitz egingo genukeela.”*

... Alkatea (EAJ-PNV): *“Mozio honetan, agian, faltan botatzen dugu, Iñaki Irazabalbeitia, izan ere, bera da nazioarteko gaietan aditua eta berak ere zerbait esango luke, ziur, mozio honen inguruan. Maiatzaren 9an da Europaren eguna eta horren haritik, EUDELeK bidali du adierazpen hau udalerrri guztietara Erromako Tratatuaren 60. urteurrena, Osoko Bilkura honetan onartu eta adierazpenari gure atxikimendua azaltzeko.*

*Adierazpena Eurobasquekoa da, Europako mugimenduaren Euskal Kontseiluarena. Erromako Tratatuaren Itun honek Europar Batasuneko Erkidegoa eta II. Mundu Gerrako zauriak gainditzea bilatzen zuen, bakea bermatzea zuen helburu, sarraskirik berriz gertatu ez zedin. Baina bakea ez da estatuak hartzen duten erabaki bat, baizik eta egunegun, landu beharreko kontzeptu bat da. Adierazpen honekin, Europa zaharraren gizakion duintasunaren defentsa aldarrikatzen dugu, bere garaian Agirre, Irujo eta Landaburuk egin zuten gisan: aniztasunarekiko errespetua, kultura ezberdinen arteko herrien batasuna eta batasun politiko, ekonomiko eta soziala. Helburu hauetatik oraindik ere oso urrun gaudela begi bistakoa da egungo Europaren egoera ikusita, eta horregatik, pentsatzen dugu, adierazpen hau onartzea garrantzitsua dela. Errefuxiatuen krisi humanitario handi bat bada, ezberdintasun sozialak handitu eta areagotu egin dira azken hamarkadetan eta era berean, erroka berriak sortu dira Europan, aldaketa klimatikoa adibide. Eta horiei guztiei aurre egiteko, berriz ere itun hori ekarri eta gogoraraztea garrantzitsua denez guretzat, geuk ere adierazpenaren alde egingo dugu.”*

-----

Idazkariak mozia irakurri du. Honela dio:

**“EuroBasque Erromako Tratatuaren 60. Urteurrenaren aurrean**

*Europako Ekonomia Erkidegoko Tratatuak, egun Europar Batasunak, eta indarrean dagoen Europako Energia Atomiko Erkidegoko Tratatuak (Euratom) 60. urteurrena ospatzen dute. Itunak 1957ko martxoaren 25ean sinatu ziren Erroman, eta orduko argazkiak, sei herri sortzaileetako Estatu gizonez beteriko gela erakusten ditu. 60 urte hauetan, gizarte europarrak historian aurrekaririk gabeko garapen ekonomiko eta soziala lortu du. Aldi berean, Europak eraldaketa nabarmenak bizi izan ditu eta krisi sakonak gainditu: Berlingo harresiaren eraikuntza; deskolonizatzeko eta Argeliaren independentzia, Frantziaren aurkako guda eta*

gero; mirari ekonomiko alemaniarra; De Gaullek eragindako aulki hutsaren krisia; 1. zabalkuntza Erresuma Batua, Irlanda eta Danimarkara; terrorismoek eragindako sarraskiak; petrolioaren krisia eta menpekotasun energetikoa; 2. zabalkuntza bolada, Europa Hegoaldera, Grezia, Portugal eta Espainiako Diktadurak erortzerakoan; Thatcherren euro eszeptizismoa; Europa banatzen zuten Berlingo harresiaren eta altzairuzko oihalaren jauskera; errepublika baltikoen independentzia eta ekialdeko Europaren emantzipazioa; Sobiet Batasunaren desagitea; Balkanetako eta Golkoko gudak; 3. zabalkuntza bolada, Iparraldera eta Austriara; Europako hainbat herriren ezetza erreferendumetan, haien gobernuak onetsitako Tratatuak berresteko orduan; oraindik burutu gabe dagoen Ekialderako 4. zabalkuntza bolada.

Krisialdien aurrean, europeismoak eta integrazio europearrak aurrera egin dute Batasun barnean zuzenbidearen inperioa finkatuz Europa mailako sistema judizial baten bidez; barne merkaturia, askatasun, segurtasun eta justizia gunea, Batasuneko hiritartasuna; Oinarrizko Eskubideen Gutuna, loteslea; Europako Parlamentuaren botereen gehitze progresiboa, Batzordeko presidentzia izendatzeraino; aldaketa klimatikoaren aurkako borroka eta garapen iraunkorraren aldeko estrategia; maila anitzetako gobernantza eta subsidiaritatea; gizarte eta lurralde kohesioa eta estruktura funtsak; Euroa, kontsumitzaileen babesa; bereizkeriaren aurkako borroka eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna; lehiaketa askeko baldintzetan merkatuzko ekonomia social sistema bat, kanpo politika komun, kanpo ekintza eta defentsa herabeak (ASPE, KEEZ, SDPK), ... Erkidegoaren ondareaz dihardu, zeinek integrazioa hobetzeko eta demokratikoagoa, solidarioagoa eta sozialagoa egiteko kemena eman behar bait digun. Eta garrantzitsuena, Europak bere historiako bakealdirik luzeena bizi izan du, horri esker 2012ko Bakearen Nobel Saria merezi izan zuelarik.

Egun, European krisi sistemiko bat jasaten ari gara: Euroaren krisi finantziario eta ekonomikoa, oraindik dirauena, erreskatatzeekin, herstura politikekin, murrizpenekin eta ongizate estatuaren atzerakadarekin; Brexit-a; terrorismo yihadistaren astindua 2001eko irailaren 11ak eta "izuauren aurkako guda"k areagotua; gerratik ihesi Europara babes bila datozen pertsonen drama; populismo eurofoboaren zabalkuntza eta Europa erdian demokrazia liberal baten agertzea. Kontseilu Europarreko presidentak, Donald Tusk-ek honakoa gehitzen du: "Washington-go gobernu berriak ekar ditzakeen arazoak, Txinaren politika Pazifikuan, Errusiaren oldarkeria Ukraina eta inguruko herrialdeekiko, edo guda eta terrorismoa Ekialde hurbilean eta Afrikan, Islam erradikalaren eskutik". Ez diezaiozun gure buruari engaina: Europak bat eginda soilik aurre egin diezaieke krisi hauei! Baina sistema instituzional demokratiko eta gardenagoa behar du, Konplexutasun gutxiagorekin, hiritarrekiko eta Europa osatzen duten herriekiko hurbilagoa, eta serioz hartu behar ditu, barrura eta kanpora begira, Europako Tratatuak, 2. eta 3. artikuluetan aldarrikatzen dituen baloreak. Europa Batasuna Giza Eskubideen Europako Hitzarmenari atxikitu behar zaio lehenbailehen eta, berezkoa duen aniztasuna aintzakotuz, Federakuntzarantz aurrerapausoa eman.

EuroBasque -k, Haga-ko 1948ko Kongresuan Europako Nazioarteko Mugimenduaren sortzailetako bat izanik, nazio-gaindiko sistema europar baten integratzeko apustua berresten du, zeinetan, estatu-azpiko nazioek erakunde komunetan era aktiboan parte hartzen duten, alegia, Erregioen Komite epela baino haratago. Bokazio federala duen Europako herri zahar bat izanik, interes handiz jarraitzen ditugu Eskoziako independentzia erreferenduma eta European geratzeko beren gehiengoaren botoa. Mundura zabalik dagoen Europa federala desiratzen dugu, zailtasunak dituzten herrialdeekiko duen erantzukizuna berea eginik, eta azkenengo funtsa Estatuak baino Europako hiritarrak dituen, eta "Europako herrien arteko batasun gero eta estuagoa"-ren aldeko gure apustua berresten dugu"

Jarraian, mozia bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

Gai zerrendatik eta kontutan izanik gaiaren premiasuna, aho batez, erabaki da ondorengo gaia aztertzea:

- \* 549/2017 (2016ko aurrekontuaren likidazioa), 550/2017(2017/1 kreditu txertaketa) eta 551/2017 (2017/2 kreditu gehigarria) dekretuen jakinarazpena.

Ondorengo dekretuaren berri eman zaie Udalbatzarkideei:

- 549/2017 (2016ko aurrekontuaren likidazioa)

**“ALKATEAREN DEKRETUA  
ZK 549/2017**

***Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita bederatzian, OLATZ PEON ORMAZABAL, Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak,***

*Ikusita kontu-hartzailek egin duen aurrekontu-likidazioa, Tolosako Udalaren 2016ko ekitaldiari dagokiona.*

*Ados egonik bai likidazioarekin, bai hura osatzen duten agiriekin, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau*

**EBATZI DUT**

***Lehena.***- Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

**DIRUZAINZA GERAKINA**

|   |              |                     |
|---|--------------|---------------------|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n:                 |              | 10.993.287,84       |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:                        |              | 4.085.932,41        |
| Aurrekontuko zordunak :   | 4.005.060,02 |                     |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak:                                   | 80.872,39    |                     |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak:                                   | 0,00         |                     |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:                       |              | 3.646.997,31        |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:                             | 2.201.064,20 |                     |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:                              | 1.447.254,59 |                     |
| - Aplikatu gabeko ordainketak:                                  | 1.321,48     |                     |
| 4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):                     |              | 11.432.222,94       |
| 5.- Saldo kobragaitzak:   |              | 2.169.006,14        |
| 6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:                              |              | 65.022,45           |
| <b>7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):</b> |              | <b>9.198.194,35</b> |

**AURREKONTUKO EMAITZA**

|  |                     |
|--|---------------------|
| 1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:                                  | 46.253,87           |
| 2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:      | -65.564,28          |
| 3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | 2.366.209,87        |
| 4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:            | -14.620,88          |
| <b>5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):</b>                                       | <b>2.332.278,58</b> |

**Bigarrena.**- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.**- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

- **550/2017(2017/1 kreditu txertaketa)**

**ALKATEAREN DEKRETUA**  
**ZK 550/2017**

*Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2017-KALD-000001-00 zenbakiduna,*

*Ikusita Kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak,*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau*

**EBATZI DUT**

***Lehenengoa.***- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2017-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**GASTUAK**

| <b>Kapitulua</b>                      | <b>Izena</b>                            | <b>Zenbatekoa</b>   |
|---------------------------------------|---|---------------------|
| 2                                     | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 163.356,65          |
| 4                                     | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK                 | 385.555,48          |
| 6                                     | INBERTSIO ERREALAK                      | 1.930.973,20        |
| 8                                     | FINANTZA AKTIBOAK                       | 6.000,00            |
| <b>TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA</b> |   | <b>2.485.885,33</b> |

**FINANTZAKETA**

| <b>Kapitulua</b>            | <b>Izena</b>            | <b>Zenbatekoa</b>   |
|-----------------------------|-------------------------|---------------------|
| 4 (SARRERAK)                | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 165.230,12          |
| 7 (SARRERAK)                | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 62.074,05           |
| 8 (SARRERAK)                | FINANTZA AKTIBOAK       | 2.258.581,16        |
| <b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b> |                         | <b>2.485.885,33</b> |

**Bigarrena.**- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

**Hirugarrena.**-Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Tolosa, 2017ko martxoaren 29<sup>a</sup>

- **551/2017 (2017/2 kreditu gehigarria) dekretuen jakinarazpena.**

**ALKATEAREN DEKRETUA  
ZK 551/2017**

*Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2017-KALD-000002-00 zenbakiduna,*

*Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

**EBATZI DUT**

**Lehenengoa.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK**

| <b>Kapitulua</b>                   | <b>Izena</b>                            | <b>Gehikuntzak</b>  |
|------------------------------------|---|---------------------|
| 2                                  | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 40.535,00           |
| 4                                  | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK                 | 2.321,41            |
| 6                                  | INBERTSIO ERREALAK                      | 675.746,11          |
| 7                                  | KAPITAL TRANSFERENTZIAK                 | 300.000,00          |
| <b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b> |   | <b>1.018.602,52</b> |



**FINANTZAKETA**

| <b>Kapitulua</b> | <b>Izena</b>            | <b>Zenbatekoa</b>   |
|------------------|-------------------------|---------------------|
| 7 (SARRERAK)     | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 72.619,43           |
| 8 (SARRERAK)     | FINANTZA AKTIBOAK       | 945.983,09          |
| <b>GUZTIRA</b>   |                         | <b>1.018.602,52</b> |

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

*Tolosa, 2017ko martxoaren 29a*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**14.Galderak eta eskaerak**

**14.Ruegos y preguntas.**

Alkateak honako aipamena egin du: "Jose Luis Unanue, Tolosako Udal idazkaria izan dena orain gutxi arte, berez ere, gaur ere oraindik idazkaria dena, orain bere opor egunetan dago eta Karmele dago hemen bere lekuan, baina dagoeneko bere lan bizitza bukatu egin da, erretiratu egiten da udaletxe honetatik eta uste dut legezkoa dela bai bere izena aipatzea eta egindako lan guztiarengatik eskerrak ematea. Udaletxe batek ondo funtzionatu ahal izateko dauden langile guztiak eta denak oso beharrezkoak dira baina egia da baita ere Kontuhartzailak eta Idazkariak harreman oso estua izaten dutela gehienbat ordezkari politiko guztiekin. Egia da, baita ere, legegaldi ezberdinetan Udaletxeko langileak egokitu behar direla korporazio berrietara, ezagutu eta malguak izan behar dutela bide horretan. Jose Luis Unanue profesional on bat izan da, gurekin harreman oso ona izan duena eta esango nuke gainera, izan diren legegaldi ezberdinetan izan diren alkatea eta korporazio guztiekin. Ez dugu izango gehiago osoko bilkuretan. Beraz, hemendik, ea iristen zaio mezua, eskerrak ematea eta hemendik aurrera opa diogu onena denon partez."

Besterik gabe, gaueko bederatziak eta bostean bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21 horas y 5 minutos de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA